


Euskal AEko industria-jarduerak % 3,3 egin zuen gora 2018ko urtarrilean

Kautxua eta plastikoa eta Garraio-materiala dira nabarmenenak hil honetan; % 10etik gorako gorakadak izan dituzte

Euskal AEko industria-ekoizpenak % 3,3 egin zuen gora 2018ko urtarrilean, 2017ko hil beraren aldean, lan-egutegiko baldintza homogeenetan, Eustatek prestatutako datuen arabera. Aurreko hilarekin alderatuta, 2017ko abenduarekin, Euskal AEko industria-ekoizpenak % 2,7 egin zuen behera, urtaroetako ondorioak zuzendu ondoren.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)
Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2018ko urtarileko indizearen bilakaerak, 2017ko urtarrilaren aldean, tasa positiboak izan ditu *Ekipoko Ondasunetan* (% 8,0), *Tarteko Ondasunetan* (% 3,3) eta *Energian* (% 1,1). Ordea, *Kontsumoko Ondasunek* behera egin dute, % 6,3, eta, horien barruan, % 8,9ko beherakadak egon dira *Kontsumo Iraunkorreko Ondasunetan*, eta % 5,3koak, *Kontsumo Ez Iraunkorreko Ondasunetan*.

Hilabeteen arteko aldakuntzak, 2018ko urtarilekoak, 2017ko abenduaren gainean, zeinu negatiboa izan du industria-sektore handi guztietan. *Kontsumoko Ondasunak*, oro har, jaitsi egin dira, % 4,5, *Kontsumo Ez Iraunkorreko Ondasunek* % 5,6 egin dutelako behera eta *Kontsumo Iraunkorreko Ondasunek* % 1,5. *Energiak* % 4,3 egin du behera, *Tarteko Ondasunek* % 1,3 eta *Ekipoko Ondasunek* % 0,7.

Euskal industrian pisu gehien duten sektoreen artean, 2018ko urtarrilean, urte arteko aldakuntzak kontuan hartuta, hazkuntza esanguratsuenak dituztenak honako hauek dira: *Garraio-materialak* % 13,8; *Kautxua eta plastikoa* % 10,3 eta *Makinak eta ekipoa* % 9,3.

Ordea, beherakada handienak *Energia elektrikoaren*, *gasaren eta lurrunaren* sektorean izan dira (% 8,4ko urte arteko beherakada), bai eta *Zuraren*, *paperaren eta arte grafikoaren* sektorean (% 5,5eko beherakada) eta *Elikagaien*, *edarien eta tabakoaren industriaren* (% 3,1 egin du behera) sektorean ere.

1. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	1,0
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-8,4
09 - Kautxua eta plastikoak	10,3
13 - Makineria eta tresneria	9,3
14 - Garraio-materiala	13,8
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-3,1
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-1,3
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-5,5

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurralde historikoaren arabera, Industria Ekoizpeneko Indizearen urtarileko urte arteko bilakaera Bizkaian baino ez da negatiboa izan; bertan, % 1,0 egin du behera. Araban, % 7,6 egin du gora eta Gipuzkoan, % 5,4.

2. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde- tasak. Behin-behineko datuak. 2018ko Urtarrila

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Urt2018 / Urt2017	A(Urt2018) / A(Urt2017)(*)	Urt2018 / Abe2017	Abe2017 / Aza2017
Indize orokorra				
Euskal AE	3,3	3,3	-2,7	3,0
Araba/Álava	7,6	7,6	0,0	2,7
Bizkaia	-1,0	-1,0	-2,8	2,5
Gipuzkoa	5,4	5,4	-4,1	3,7
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-6,3	-6,3	-4,5	1,6
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-8,9	-8,9	-1,5	0,4
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-5,3	-5,3	-5,6	2,0
Ekipo-ondasunak	8,0	8,0	-0,7	3,4
Bitarteko ondasunak	3,3	3,3	-1,3	1,9
Energia	1,1	1,1	-4,3	2,4

(*) 2018ko urtarriletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2017eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62